

ATXILOKETAK. Iker Begiristain eta Miren Azkarate atxilotu zituen atzo Guardia Zibilak. Azken horiekin, 15 dira jada kale erasoak egotzita atxilotu dituzten donostiar gazteak; zortzi kartzelatu egin dituzte, eta bederatzik torturak jasan izana salatu dute.

Atzoko biekin, guztira 15 gazte atxilotu dituzte Donostian hilabete hasieratik

Tortura salaketak bederatzi izan dira, eta «salbuespen egoera» salatu du Sozialista Abertzaleak taldeak

TORTURA SALAKETAK

«Infernuaren amaiera» Aritz Beristaintzat


Guardia Zibilaren eskuetan egon zen bitartean torturak jasan izana salatu zuen astelehenean Aritz Beristainek, Auzitegi Nazionaleko Baltasar Garzon epailearen aurrean. Testigantza horren ostean, Grosen bizi den 21 urteko gaztearen abokatuak berarekin egoteko aukera izan zuen. «Lur jota» aurkitu zuen gaztea, EGUNKARIARI adierazi zionaren arabera.

Alabaina, «infernua amaitu» zenaren sentipena agertu zion abokatuari. Izan ere, egin zuen deklarazioa «gogorra» izan zen, benetan. Epailearen aurrera herrenka azaldu zen Beristain, «izter batean mina» baitzuen. «Negarrez», Guardia Zibilaren esku egon zen tartean jaso zuen tratua deskribatu zuen.

Testigantza horretan, «mahai baten gainean jarri eta makila uzkitik sartu» ziotela azaldu zuen. Mehatxu ere egin zioten, batez ere «bere neska-laguna eta ama bortxatuko zituztela» errepikatu bide zioten. «Pistola bat buruan jarri eta balarik gabe tiro» egiten zioten, baita ere.

Era berean, «poltsa» askotan egiten ziotela ere aipatu zuen Beristainek. «Okadak irentsarazi, manta batean bilduta zegoen bitartean kolpeak eman,...», gisa horretako adierazpenak egin zituen Garzonaren aurrean.

Fiskaltzak *kale borrokako* ekintzetan aritu izana leporatu bazion ere, une oro ukatu zuen Aritz Beristainek salaketak hori. Abokatuak, berriz, «oinarrizko giza eskubideak urratu direlako», besteak beste, gaztea aske uzteko eskatu zuen; espetxeratu egin zuten, baina.



JUAN HERRERO / EFE

Kalekoz jantzitako guardia zibilak, burua estalita, atzo goizaldean Donostian eginiko polizia operazioan.

Joseba Imaz | DONOSTIA

Abuztuaren 31n Guardia Zibilak hasitako operazioak ez du etenik izan, atzo beste bi gazte gehiago atxilotu baitzituzten, bata Puio auzoan eta bestea Parte Zaharrean. 30 bat urteko Iker Begiristain eta 18 urteko Miren Azkarate goizeko ordu txikietan atxilotu zituen Guardia Zibilak, eta biak Guardia Zibilak Madrilén duen Zuzendaritzara eraman dituzte. Begiristain zauritu egin zen, etxeko leihotik jauzi egin eta ihes egiten saiatu zenean, Askatasunak jakinarazi duenez.

Kale borrokan aritu izanaren

salaketapean, jada hamabost gazte atxilotu ditu Guardia Zibilak Donostian, joan den abuztuaren 31n Igeldon kaputxadun talde batek autobus bat erre zuenean hasitako ekinbideen ondorioz.

Atxiloketa horien harira, eta hamabostetik zazpi gazte torturak salatu dituztela ikusita, Donostiak «salbuespen egoera» duela adierazi zuen atzo Donostiako Sozialista Abertzaleen zinegotzi taldeak. Hori ikusita, Udaleko arduradunek ezin dutela «beste aldera begiratu» gaineratu zuten.

Azken atxiloketak atzo goizeko 01:40etik 05:00etara bitarte-

an egin zituen Guardia Zibilak. Donostiako Puio auzoan duen etxean atxilotu zuten Iker Begiristain, goizaldeko 01:45 aldera. Etxeko leiho batetik jauzi egin da ihes egiten saiatu zen hogeita hamar urte inguru dituen gaztea, eta ahalegin horretan zauritua egin zen, Askatasunak berri eman zuenez. Jauzi egitean jasotako kolpearen ondorioz, sudur-trenkada hautsia duela adierazi zuten Guardia Zibileko iturriek.

Beste atxiloketa, berriz, Donostiako Parte Zaharrean egin dute, 02:30 inguruan. 18 urteko Miren Azkarate Badiola bere gurasoen etxean atxilotu zuten.

Askatasunaren arabera, Guardia Zibilak «bortizki» jokatu zuen, etxebizitza osoa hankaz gora utziz.

Aipatu bi gazteen bizitokiez gain, hiru ordu pasatxo iraun zuten bilaketetan beste etxebizitza bat ere miatu zuen Guardia Zibilak. «Material ugari» atera zuten miaketa horietan, Espainiako Gobernuak Gipuzkoan daukan ordezkariak jakitera eman zuenez.

Donostia «salbuespen egoeran»

«Azkenaldian donostiarrek jasan dituzten erasoen» artean kokatu zuen Donostiako Sozialista Abertzaleak zinegotzi taldeak Guardia Zibilaren operazioa. Era berean, atxiloketa, tortura salaketa eta miaketek Donostiak duen «salbuespen egoera» islatzen duela salatu zuten, atzo kaleratu prentsa oharrean.

Guardia Zibilaren operazioan «Donostiako gazte horien eskubideak urratzen» ari direla ere salatu zuen udal taldeak, eta hori ikusita, Donostiako udaleko alderdi politikoek ezin dutela «beste aldera begiratu» azaldu zuten. Beraien hitzetan, «Odon Elorza eta Arritxu Marañonek ezin dute beste aldera begiratu donostiar hiritarrei, azken finean, abertzale izateagatik erasotzen dietenean».

Horrela, Udalean bozeramaile batzorde berezi bat egin dadila eskatuko dutela iragarri zuen zinegotzi taldeak. Giza Eskubideen Batzordea biltzeko nahia ere erakutsi zuten, «azken eraso guztiak aztertu eta horiei aurre egiteko egin daitezkeen ekimenak zehazteko» helburuarekin.

Iker Begiristain eta Miren Azkarateren aurretik, hamahiru gazte preso hartu zituen Guardia Zibilak joan den astean zehar; atzokoekin, bada, hamabost dira *kale borrokan* aritzen bide ziren lau taldeetako partaide izatearen salaketapean Guardia Zibilak atxilotu dituen gazteak.

Horietatik guztietatik bost kalean dira jada: Aitor Mokoroa, E.O. adingabea, Iñaki Aier-